

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2007ko urriaren 26a / 229. zenbakia / 18. urtea

- HERRIKO KONTUAK **Gazte Eguna** 05
- KIROLA II. **Orioko Herri Krosa** 08
- AIAKO BERRI **Gurutze Ormazabal** 10

- IRITZIA **Mikel Izquierdo** 20
- MOILA BAZTERRETIK **Ainara Peña** 21
- HERRITARRA **Shanti Arrieta** 25



Urtetik urtera gero
eta **gehiago** gara

Gero eta emakumezko
gehiago dabil
Mendibeltz inguruetan.
Izan ere, aurten, Orioko
Futbol Taldean bi neska
talde osatu dira.

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

edukitegia

ANTILLA

jirafak

Abeslariak - TEL. 943 89 00 00

Pinturak ELKAR

pintura eta paperaize lanak zoru leunketa

Abendaño industrialdea
943 83 08 45 / 819 60 23 35

ZARAUZ

Kinkladenda- Uma arropa

argine

www.lasonef.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA UGARIEN TXARTELAREKIN

uranga

auto zerbitzua

Aliprox

Huelin Garden Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

AMILIBIA

ONTZIALAK, S. L.

lurri portuaren proiektu eta instalazioak

goi mailako lehiaketa-ak
arrazon-entzake

Olaskoaga 3000, 52
34 943 83 08 29
fax: 34 943 89 40 81
amilibia@amilibia.com
www.amilibia.com

Dorronoro Denda

1961etik zure ondoan

AUKERA HANDIAGOA FRUTATEGIAN

Tel 943 83 09 37

Carmen eta Txomin

ARRANDEGIA

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Gure Txoko

Arriaga Kalea

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Lertxundi, 33 beheko ORIO
Autobus parada ondoan

Gabon

TABERNA

plater konbinatuak pintxoak

Tfnoa: 943 83 06 03

Galeria I

Igo zaitoz haize berrietara!

943890416-677149932
galeria1orio@hotmail.com

TANATORIO ZARAUZ

EUROFUNERARIAS TALDEA

Hileta eta zerbitzu orokorrak

* Donostia eta probintziako ospitaleetan
* Aldiarako zerbitzua
* Belatorio gelak
* Koroak, eskelak, trinitarioak...

Araba kalea, 35 Zarautz

Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 46 41
e-mail: harrespit@harrespil.net

A&E

The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl. 8 Orio

Tel. 943 00 42 44
943 83 51 91

ARKAITZ

Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 1

Tel: 943 83 16 57

INDO

Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea
20810 ORIO
943 83 15 27

karkara@topagunea.com

Editorea

KARKARA taldea kultur elkarte

Zuzendaria

Ana G. de Txabarri

Erredakzio burua

Patxi Uranga

Erredakzio taldea

Lore Berasaluze, Pat Cowie,
Miren Etxeberria, Ana Iturain,
Eneritz Odriozola eta
Jabier Zabaleta

Aiako erredakzioa

Eli Lasa eta Pat Cowie

Publizitatea

Pat Cowie

Publizitatearen diseinua

Patxi Uranga

Testuen zuzenketa

Miren Etxeberria eta
Jabier Zabaleta

Ale honetako laguntzaileak

Gazte Asanblada, Mikel Izquierdo,
Arantxa Arrillaga eta
Angel Lertxundi

Diseinua

KARKARA taldea eta Goio Arana

Banatzzaileak

Josu Lizarralde eta
Itziar Aiestaran (Orio)
Irene Aldai (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Oñati)

Lege gordailua

SS-346/90

ISSN 1132-1105

Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen edota
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berrieman
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta
iturria aipatzen bada.

Nahikoa indar badugu

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

1

Aterpea behar eta
biltzen hasi ginen,
hasieran pankarta
ta kartelak ziren,
Udalakin biltzea
hautatu genuen,
nahikoa indar badugu
gu gazteok hemen.

2

Kontraesan asko ta
soluzio gutxi
beraz gure ekintzak
nahi dira erakutsi,
gu errespetatzeko
ordua da iritsi
Gazte egunera hurbildu
ta propina utzi.

3

Urriak 27n
da Gazte Eguna
ttuntturro, erraldoi ta
bazkaia dituna
beste gauza askon arten
dago kontzertu ona
gazte anima hadi
ta etorri hona.



PUBLIZITATE PREZIOAK

IRAGARKIA ALERO JARRITA

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

IRAGARKIA BEHIN JARRITA

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@topagunea.com
Prezio hauei BEza gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



Euzko Jaurlaritzak

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Jon Redondo: ez zoaz bide onetik

Harrituta geratu gara Orioko EAJk egindako adierazpenak irakurri ditugunean. Izan ere, *ezkutuko* negoziatziotzat jo ditu EAE, EB-Aralar eta EA alderdien arteko elkarrizketa batzuk. Elkarrizketa horietan, beste gai garrantzitsu batzuen artean, EAEko zinegotzi batentzat liberazio ekonomiko xumeak adostu ziren, eta EAJko zinegotziarentzat gaintzietatik bat. Eta zer da hori alkaterearen supersoldatarekin alderatuta (30. maila = 56.000 euro)? Hori ez da txeki zuri bat. Egunero irabazi behar duzu, Udala zintzo, garbi eta arduratsukudeatuz. Era berean, aditzera eman behar dugu EA ez dela inoiz *ezkutuan* ibili, ez ezeren ez inoren ezkutuan, edozein talde politikorekin edozein gairi buruz hitz egiteko.

Bestalde, etikoki ezin da onartu zure taldeko zinegotzi batek, Noemi Ostolazak, administrazio publikoan (Gipuzkoako Foru Aldundiko errepide-departamentuan) duen jardun partzialaren truke soldata bikaina izanik, gure Udalean bi ordainsari jasotzea, nahiz eta bi batzorderen buru izan. Gure ustez, desoreka hori laster zuzendu beharko da. Era berean, ez zaigu etikoki onargarria iruditzen alkate gisa duzun soldata izanda, informazio-batzorde bakar bateko buru ere ez izatea, eta batzorde guztiak zure zinegotzien esku uztea, dagozkien dieta eta guzti.

Azkenik, zure taldeak, EAJk, aurreko legealdiaren amaieran egindako jardun

arduragabea nabarmendu nahi genuke. Izan ere, ezerezean utzi zuen Eusko Jaurlaritzarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako diru-laguntzei buruz egin genuen lan guztia. Iturriaga Jauregian —Goiko kalean, Turismo Bulegoaren ondoren— Done Jakue Bideari buruzko interpretazio zentroa jartzeko ziren diru-laguntza haiek. Orain zerotik hasi behar da berriz, eta ezin da ziurtatu proiektu horren zati bat finantzatzeko laguntzarik jasoko ote dugun. Gai hori buruz aritu izan zarenean ez duzue gure lana eskertzeko eta barkamena eskatzeko hitzik ere esan. Baina hori normala iruditzen zaigu Orion egin duzuen ibilbide politikoaren zati bat nolakoa izan den kontuan hartuta. Espero dezagun jokamoldea aldatzea, Orioko talde politikok guztien, eta, oro har, herri guztiaren mesederako.

ORIOKO EUSKO ALKARTASUNA

Esku arinak kultur etxean

Oraintxe ezerk ezin gaituela harritu iruditzen zait. Denetik ikusten dugu eguneroko bizitzan, arrazoirik eta funtsik gabe burututako mila ekintza gaizto. Baina, hala ere, ezin uler dezaket batzuen errespetu falta eta txorakeria. Izan ere, kultur etxeko grapagailua ostu du baten batek. Ez zait iruditzen lapurrak benetako beharra zuelako zamaran zuenik, eta honek zerkero zakarrontzian ez bada, etxeko txoko izkuturen batean izango da.

Egina, egina dago; baina,

erabili behar ez badu, kultur etxera ekar dezala berriz; erabiltzeko asmoa badu, on egin diezaiola.

Hala ere, hurrengorako, berea ez den zerbait lapurtu beharrean, har ditzala kultur etxeko sarreran herritarren eskura dauden kulturekintzei buruzko informazio orriak grapagailua beharrean.

IMANOL URKIZU

Gurpil zulatzaileari

Lehenik eta behin KARKARA aldizkaria zoriondu eta animoak eman nahi nizkioke lan talde guztiari, egiten duen lana ez baita makala.

Tartetxo hau orain dela aste batzuk izan nuen gertakari bat azaltzeko erabili nahi nuke.

Ni eta nire neska laguna Santion bizi gara eta bizikleta da gure garraio bide bakarra. Oriora hurreratzen garenean, bizikletak Salatxo gaineko aterpean utzi ohi ditugu lotuta, neskaren amaren etxepan (konfiantzagatik edo). Badirudi, ordea, norbait ez diola grazia handirik egiten, iluntze batean bi bizikleten lau gurpilak zulatu baizizkiguten. Ondorioz, oinez itzuli behar izan genuen etxera gure haserre bizkar gainean hartuta.

Ez da, ordea, lehen aldia izan, beste behin, gaueko lan txanda baten ostean, goizeko seietan, bizikleta hartzera joan eta gurpilak zulatuta zeuden.

Idatzi honen helburua, nire etsipena kontatzear gain, gurpil-zulatzaile (garunsekatu-babo odolki-desgraziatu) horri bi gauza esateko da:

1. Gure bizikletak hor uzte-

ak eragozpenen bat sortzen badio, esan besterik ez du (ziur baikaude bizikletak norenak diren badakiela).

2. Aspertuta badago, afizio hobeak badaude jendea izorrratu gabe.

Besterik gabe, eskerrik asko berriz ere KARKARARI tartetxo honengatik. Eta gurpil-zulatzaile horri, aurpegia emateko adorerik ez badu, bide honen bitartez erantzun dezala.

AITOR ARREGI "XIMEL"

Joko txartela galdu dut

Joan den igandean, urriak 21, Kukuarri denda parean bizikletatik erori eta honakoa galdu nuen: Nintendo R4 makinarentzako joko txartela eta aparailuaren arkatza.

Norbaitek aurkitu baditu, mesedez, deitu dezala 610 78 41 57ra eta Aingeruren galdera egin.

ARATZ

Behobia-Donostia autobusa

Aurtengo Behobia-Donostia lasterketara autobusean joateko zerrenda zabaldu dugu dagoeneko. Interesatuak Karella kiroldegira jo besterik ez duzue izena emateko. Bertan emango zaizkizue beharrezko diren argibideak.

JUANANGEL GARMENDIA XARPAS

GUTUN GEHIAGO 16 ORRIAN

KOLON TXIKI
 Herriko Enparantza, 4
 ORIO
 Tel. 943 83 00 44

Lizaso
 Alzariak
 Tel. 943 83 00 44
 Fax: 943 83 00 44

ATC
 Agentes: Olariaga
TORREALDAY
 aholkularitza
 Berezitasunak:
 ✓ Enpresa berriak sortzeko diru-laguntzen kudeaketa. Txekin.
 ✓ Aseguru artekaritza.
 ✓ Finken administrazioa.
 Buzoiak 4, behean. Tel: 943 13 37 20 Fax: 943 83 52 50 www.atcormolden.com e-mail: olariaga@olariaga.com

GAZTEEK BEREN KABUZ KUDEATUKO DUTEN GUNE PROPIOAREN BEHARRA AZALDU NAHI DUTE KALEAN

Autogestioan oinarritutako lokala aldarri Gazte Egunean

Gazte Asanbladako kideek dena prest daukate I. Gazte Eguna ospatzeko. Kalera mozorrotuta ateratzeko deia egin diote jendeari.

Akanpadak, ijito festa, san-pedroetako kontzertua skate parkean... denbora da herriko gazteak beren kabuz kudeatuko duten gune propio baten falta salatzen ari direla. Bide horretan pauso bat gehiago izan da I. Gazte Eguna antolatzeko ideia. Horrela azaldu dute Gazte Asanbladako kideek larunbateko festa egitearen zergatia. Izan ere, bi urte badira gazteen aisiari buruzko diagnosia argitaratu zela, eta txosten horrek argi eta garbi azaltzen zuen herriko gazteek autogestioan oinarritutako lokal bat behar zutela. *Ikusita Udalak orain artean ez duela egoera aldatzeko boron-daterik azaldu, beharrezkoak diren pausoak ematea erabaki dugu*, esan digute antolatzailleek.

EGITARAUA

10:30ean hasiko dute eguna, zanpantzarren kalejirarekin. Herria ondo esnatzeko helburuarekin aterako dira gazteak, ttuntturroak bizkarrean, kalera.

Ordu erdi beranduago, 11:00etan, hasiera ofiziala emango zaio egitarauari, Udaltxeko balkoitik botako duten suziriarekin. Segidan, poteoan abiatuko dira denak. Ez da, baina, ohiko poteoa izango, taberna batetik bestera ibiltzeko hainbat trikitalari, txalapartari, buruhandi, erraldoi eta zanpantzarren laguntza koloretsu eta zaratsua izango baitute bidean.

Eguerdian, 13:00etan, herri jokoen txanda izango da. Antolatzailleek jakinarazi dutenez, jokoena ez da koa-



Zanpantzarrek emango diote hasiera Gazte Eguneko egitarauari 10:30ean.

KOLDO OLARIAGA

drila eta lagunaren lehia soilak izango, izan ere, partehartzaileek prestatutako mozo-rron orijinaltasuna eta jokalariei emandako animoak kontuan hartuko dituzte one-

nak aukeratzerako orduan.

14:30ean herri bazkaria egingo da plazan. Nahi adina marmitako izango dela ziurtatu dute Gazte Asanbladakoek, bertaratzen dena bapo-

beteko omen da. Ez zaie guztiei sekulako betekadarekin bukatzea komeniko, bazkalondoan jokoak izango baitira berriz ere.

Arratsaldeari dagokionez, tanborrada alternatiboa izango da 19:00etatik aurrera. Alternatiboa eta ezohikoa, kupelen eta tanborren partez, kazola eta zartagin zaharrekin arituko baitira kalerik kale.

22:00etan hasiko den kontzertuarekin etorriko zaio bukaera egunari eta hasiera gauari. Hiru taldek joko dute bertan, Oriokobik, *Silikosis* eta *Restos sucios*, eta Anoetako batek, *Gargantas desgarradas*. Hauxe izango da, gainera, *Silikosis* oriotarrak zuzenean ikusteko eta entzuteko azken aukera, taldea desegin eta aguresatea erabaki baitute partaideek.

Gazte mugi hadi!

Bada garaia ekitaldiak, tailerrak, jolasak, hitzaldiak, elkar-ulertzea, elkarbizitza, harremanak... gure eskuetatik sortu daitezten. Gu bildu, guk antolatu, guk hitzartu, guk burutu, guk garbitu eta guk disfrutatu, autogestioaren bidez, gure akatsetatik ikasiz.

Bide horretan, herri honetan inoiz ezagutu gabeko pausu bat eman da, gazteriaren arazoari aurre egiteko eta gaztetxe proiektua martxan jartzeko, Udala eta gazte asanblada mahaiaren inguruan hitz egiteko eseritzean.

Horregatik urriaren 27an ospatuko dugun gazte eguneko jaiean parte izatera gonbidatzen zaitugu.

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

GIZARTE GAIAK LANDUKO DIRA MARTXOA BITARTEAN

Farfarak Esperientziaren Eskola tailerrak jarri ditu

Ingema-Mugabe eta Udalaren laguntzaz antolatutako tailerrak erantzun bikaina izan du herrian eta, taldea osatuta, hilaren 29an ekingo diote ikasturteari.

Farfara herritarren elkarteak *Esperientziaren Eskola* tailerrak antolatu ditu Ingema-Mugabe eta Udalaren laguntzaz. 50 urtetik gora dituzten edo aurre erretiroa nahiz ezintasunen bat duten herritarrei zuzendua dago proiektua. Bertan, bakoitzak herrian duen lekua eta denbora libre nola aprobetxatu erakutsiko zaie parte hartzaileei. Urriaren 29an hasita, astelehenero 14:30etik 16:30era izango dira eskolak, martxoaren 31 arte.

ERANTZUN BIKAINA

Izen emateko epea ireki bezain pronto osatu zen 15-20 pertsonatako taldea. Aitziber Indart Ingemako arduradunak adierazi duenez, ekimen honek ez du orain arte gurean izan duen bezalako aparteko erantzunik jaso: *29 adiskidek eman dute izena, eta Orioko Udalak diru laguntza handia eman digun arren, bi talde osatzeko aurrekonturik ez dugu. 30 laguneko gela bakarra osatuko dugu, noski. Tailerrekin izandako erantzuna kalean egindako propagandari esker izan da eta horretan eskerrak eman nahi genizkioke Josemari Dorronsorori.*



Antolatzaileak oso pozik agertu dira jasotako erantzunarekin.

KARKARA

Bakoitzak herrian duen betebeharra eta denbora libre nola aprobetxatu erakutsiko zaie parte hartzaileei

TAILERRAK

Ikastaroa 3-4 tailerreko lau modulotan banatua dago. Horrez gain, ziklo bakoitzaren

amaieran ekintza irekiak ere izango dira. Bizitzarako filosofia landuko da lehenengo 4 saioetan Ostatz de Andres hizlariarekin. Teknologia berrietara gerturatzeaz arituko da Maite Irazabalbeitia bigarren moduluan. Hurrengo saioetan gizarte harremanak eta komunikazio erraztasunaz jardungo dira. Eta azken klaseetan, gizartean parte hartzearen onurak jorratuko dira.

Bestalde, ekintza irekiei dagokienez, zine forumak eta hitzaldiak antolatuko dituzte.

LABUR

HEZIKETA Guraso topaketak

Askagintza elkartearen eskutik gurasoen topaketak izango dira azaroaren 5ean, kultur etxean, 19:00etan hasita. Koro del Pozo psikologoak hartuko du bertan parte.

Topaketaren izenburua hau izango da: *Nire seme-alaba aisialdian aspertu egiten da. Nik, aldiz, ederki pasatzen dut: kar-kar!*

HIRIGINTZA Moila berriz itxita

Moilako lanak direla eta, bertatik pasatzeko aukera kendu egin zuten urriaren 22an. Ondorioz, datozen asteetan, ibilgailuek Txankatik barrena atera beharko dute herritik. Era berean, ezingo da Endaia plazatik Ibai-Ondora sartu. Obra hilabetea bukatuta izatea espero dute Udal arduradunek.

BERTSOLARITZA Sukia dotore

Gipuzkoako bertsolaritza txapelketa finalaurrean murgildurik dabil. Hiru oriotarretatik bik hilaren 20an jokatu zuten Azkoitiako Baztartxo antzokian. Bigarren geratu zen Xabier Sukia 474,0 punturekin. Iñaki Gurrutxaga, berriz, 466,5rekin 5.ena izan zen.

Ibai Esoainek Tolosa-ko Usabal kiroldegian izango du saioa azaroaren 4an.

LURDES
ANTZAKIA

Eusko Gudar, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz
Marigre Zaldúa
aseguru agentea
Ibai Ondo, 10 behe-oina
telefonoa: 943 13 47 60
faxa: 943 83 57 52
e-maila: zaldua.delacruz-pa@allianz.es



RAMIRO
argazkiak
www.fotaramiro.com
fotaramiro@fotaramiro.com
610 69 76 68
943 83 10 48

BOST ORIOTARREK ETA AIAR BATEK JASO ZUTEN DIPLOMA: 4K ZILARREZKO DOMINA ETA 2K TROFEOA

Oria Beheko odol emaileen urteroko jaia Orion egin zen

Hilaren 21ean ospatu zen Oria Beheko Odol-Emaileen Elkartek antolatutako jaia Orion. 25, 40, 50 eta hortik gorako odol ateratzeak izan dituztenei diplomak, insigniak eta trofeoak banatu zizkieten bertan.

Urtero egiten duen moduan, zilarrezko dominak eta trofeoak banatu zituen urriaren 21ean Oria Beheko Odol-Emaileen Elkartek, aurtengoan Orion. Guztira 119 sari banatu zituzten. Zilarrezko domina eta insignia bana jaso zuten 25 aldiz odola eman duten 74 lagunek; trofeoa banatu zitzaion 40 aldiz eman duten emakumezkoiei eta 50 odol ateratze izan dituzten gizonezkoiei.

Horien artean 5 izan ziren oriotarrak: Fernando Bergado Aizpuruak, Iñaki Garate Aldazek eta Iñaki Pardina Larrartek zilarrezko domina jaso zuten. Mari Karmen Solaberrieta Etxeberriak ezin izan zuen trofeoen banaketara joan eta senarrak hartu zuen emazteari zegokiona. Isabel Astiazaran Urbizuk berriz, 50 aldiz emateagatik jaso zuen trofeoa. Izan ere 10 urte lehenago ez zuen saririk izan, lege zahararren arabera, bai gizonezkoak eta baita emakumezkoak ere 50 odol ateratzetara iritsi arte ez baitzituzten saritzen. Ordukoak aurtengoa jaso ditu, beraz.



Saritutakoak eliza atarian familiakoek eta odol emaileen Orioko ordezkari Krisitina Salsamendik lagunduta.

KARKARA

Aiatik berriz, Jose Andres Lertxundi Iturainek jaso zuen zilarrezko domina.

Sari bereziak ere izan ziren: 75 aldiz odola eman izanagatik lau emaile izan ziren trofeo banarekin sarituak.

EGUN BOROBILO

Goizeko 11:00etan elkartu ziren odol-emaileak herriko plazan. 200 lagunera bueltan bildu ziren denera festa giroan, egunaz gozatzeko prest.

Meza izan zuten 12:00etan San Nikolas elizan. Elizkizun-

na bukatu bezain laster hasi ziren eguneko protagonistei insigniak, dominak eta trofeoak banatzen. Banatzaile lanetan aritu ziren Xabin Urzelai, Gipuzkoako Odol-Emaileen Elkarteko lehendakaria, Jon Redondo alkatea eta Krisitina Atorrasagasti Orioko Odol-Emaileen ordezkaria, besteak beste.

Sari banaketa amaitu ondoren Balea hotelera abiatu ziren, bertan bazkaltzeko asmoarekin, *Egunsentian* otxotea lagun zutelarik.

Zilarrezko domina jaso zuten 25 aldiz odola eman duten 74 lagunek; trofeoa eman zieten 40 aldiz emandako emakumezkoiei eta 50 alditan emandako gizonezkoiei

He apaindegia
MARIJO
Neska eta mutilentzat
Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel: 943 13 47 29
ORIO

aroztegia
MIRANDA
fartina, ato, botin, eskalera...
behar diren artoak lanak
egiteko dituzte
Urdaneta bidea, 1 - 4610 42 52 70 - SARAUTZ

Orioko
Ogia
ORIOGI
OPIL OKINDEGIA
Frontoi ondoan
Tfn: 943 83 01 89



Sekulako harrera izan zuen pasa den urteko lasterketak, herritar eta kanpotar ugari hartu zuten parte.

EUGENIO COTADO

IAZKO IBILBIDE BERA MANTENDUKO DA: HONDARTZARA HIRU JOAN-ETORRI

II. Orioko Herri Krosa izango da azaroaren 3an

Azaroaren 3an, 17:00etan hasiko da II. Orioko Krosa. Aurretik hurrek 1.000 metro inguruko ibilbidea egingo dute.

Azken mementora arte zalan-tzan egon arren, II. Orioko Krosa antolatzea erabaki du Udalak, Euskal Herriko Zirkuituaren barruan aurtengoan ere. Azaroaren 3an izango da, 17:00etan. Aurretik, hurrek kilometro inguruko lasterketa egingo dute.

Ibilbidea joan den urteko

bera izango da; beraz 10,360 kilometro egin beharko dituzte korrikalariak: hondartzara hiru joan-etorri.

Guztira 36 sari banatuko dira 3 kategoriatan: gazteak, seniorrak eta helduak. Helden artean beste 3 azpimaila egongo dira: A (35-44 urte), B (45-54) eta C (55etik gorakoak). Lehenengo hiru gizon-nezkoek eta hiru emakumezkoek jasoko dute domina podiumean, 18:15ak inguruan. Korrikalari bakoitzari kamiseta oparituko zaio eta

lasterketa amaierako zozketan ere parte hartuko dute.

IZENA EMATEA

Izena emateko epea zabalik dago jada. Zenbait bide dau-de horretarako: www.herri-krossa.com atarian egin daiteke edota Karela kiroldegira deituta (943 894428). Lasterketa eguna baino lehen 8 euro ordaindu beharko da parte hartzeagatik, eta krosaren egun berean, 15 euro. Horretarako epea lasterketa eguneko 16:00etan amaituko da.

LABUR

PLAIEROAK

Denboraldia hastera doa Xixario taldea

Urriaren 28an hasiko da Zarauzko LXIV. Hondartzako Futbol Txapelketa. Azken urteotan bezala, Xixario neska taldea izango da bertan parte hartuko duen Orioko talde bakarra. Egun horretan Talai Berri taldearen aurkako izango du lehenengo lehia, 10:30ean.

ESKUBALOIA

Xurumurru lider da

Urriaren 20an jokatu zuten Xurumurru taldeko mutilek Gipuzkoako Txapelketako lehen partida. Zumaragako Urola taldeari 49-3 irabazi ondoren, lider dira dagokien multzoko sailkapen orokorrean.

Aurtengoan, guztira, 29 talde arituko dira lehiatzen txapelketan, 3 multzotan banatuta. Xurumurrukoak bigarrenaren arituko dira.

ZUZENKETA

Iglesiasen denbora

Aurreko KARKARAN akatsa egin genuen eta hori zuzentzeraz gatzoz.

Joxean Iglesiasen Bilbon jokatuak Euskadiko Txapelketan egindako denbora 01:00:15 izan zen, eta ez 01:15:00, guk jarri bezala.

OLIDEN
Herriko
HARRAI
ORIO
Eusko Gudari, 2
Tfn: 943 83 10 88

ARGIDENTAL HORTZ KLINIKAK
Dr. Soulier doktoreak
Odontologia
Periodontia
Endodontia
Implantologia
Prebentzio
Errehabilitazio
Hortz estetikak
Protetikak
Maria Etxebarri 1, Zarautz
943 13 82 78
clinicadentalasoulier@telefonos.com

FIOTERAPIA: Gorka Arizaga eta Nerea Wernosen
NUTRIZIONISTA: Gorka Arizaga
sinergia investigación fisioterapia
ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 - 685 71 85 95

MOTOKROSA

Bikain

Gara Falconet gidari gazteak sekulako emaitzak lortzen jarraitzen du aurkeztzen den motokros txapeketa guztietan. Azkene-koa, urriaren 14an, Gironan, Pirinioetako kopan. Jokatu behar zituen bi txandetatik aurrenekoan onena izan zen bai 15 urte-
tik gorakoetan eta baita 15 urtez azpikoetan ere. Bigarren txandari dago-
kionez, bigarren denbora onena egin zuen 15 urte-
tik gorakoetan eta onena bere adinekoen katego-
rian. Sailkapen orokorrean beretzat izan zen lehen postua.

HURRENGO PROBAK

Beste hiru lasterketa ditu Garakurtea amaitu aurretik: azaroaren 4an Gironako Vidrieresen, abenduaren 6an Bartzelonako Sant Cebria de Vallartan eta abenduaren 9an Gironan, Santa Coloma de Farnesen.



Sekulako emaitzak lortu ditu Garak.

JOSEBA UNANUE | UNAR TALDEKO DARDO JOKALARIA

“Giroa eta emaitza onak nagusi izan dira Gironan”

Europako dardo txapelketa jokatzetik itzulita, Joseba Unanuekin izan gara.

Nola joan da txapelketa?

Ondo. Taldearen lana positibotzat joenezake, hainbat kategoriatan postu aipagarriak lortu baitira. Horretaz gain, lagun arteko giro ona izan da guretzat onena.

Emaitza onak aipatu dituzu.

Batetik, *Pro Master* kategorian, Saioa Urdangarin eta biok, 128 bikotetatik bosgarren izan ginen bikote mistoen atalean. *Master*retan neronek bakarrik hartu nuen parte eta 4. izan nintzen 501 modalitatean. Ondo, 2006an garaipena lortu eta aurten 32 onenen artean sartzea bainuen helburu. *Amateur*retan 14 talde-
de aritu ziren eta batere gaizki ez, gainera; Samuel Lazkano, Antxon Manzisidor, Juan Manterola, Iosu Aldakur eta Juan Migel Martin Europako azpitxapel-
dunak izan ziren. Bikoteka, Joseba Areizaga eta Ramon Moneo tolosarra 9. izan ziren bikotekako cric-
ket modalitatean. Bakar-
kakoan, Jose Ramon Unanue, berriz, 7. izan zen bai bakarkako Cricket sailean eta baita 501 modalitatean ere. Cricketarekin



Taldeko partaideetako batzuk eskuratutako sariak eskuetan dituztela.

UNAR

Taldea 15 lagunek osatu genuen, bederatzi gizonezko eta sei emakume

jarraituz, Antxon Manzisidor 9. izan zen.

Gustura, beraz.

Bai, bai. Taldea 15 lagunek osatu genuen, bederatzi gizo-
nezko eta sei emakume: gazte-
na 17 urtekoa eta zaharrena 55ekoa. Giroa aparta izan da gure artean. Gutako batek jokatzeko zuenean beti aldamenean ginen besteak animoak emateko. Afaria ere egin genuen pasa den ostira-

Azaroaren 9tik 11ra Copa K.O. torneoan hartuko dugu parte, Marina d'Or-en

lean, baina honaino bakarrik esan dezaket, kar, kar.

Beste txapelketarik baduzue aurrera begira?

Bai, urriaren 28an Donostian jokatzeko den taberneta-
ko selekzioen torneo. Bestalde, azaroaren 9tik 11ra Copa K.O. izeneko torneo batean hartuko dugu parte, Marina D'Or-en. Hiru laguneko talde-
deka jokatzeko da eta Unarreko 3 hirukote sailkatu gara.

TRAGOXKA
PUB

pubtragoxka@buenavista.com
Aritzaga, 11 tel. 943 13 22 36

Zaragueta Eskola Orrio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L

TRAGORAK - BILBULAK

Santiago ezua - 18 postakutua
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

AENOR
ISO 9002
Esterako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

GURUTZE ORMAZABAL | MEDIKO-OSTEOPATA

“Hartu lan bakoitza eta hor aurkituko duzu arazoa”

Aiako baserri batean bizi da Gurutze, senarrarekin eta hiru seme-alabekin. Gutako askok ezagutzen dugu bere eskuetatik pasa garelako!

Zarauztarra izanda, nolatan bizi zara Aian baserrian?

Zarauztar peto-peto naiz, lana Zarautzen egiten dut, baina bizitza etxean egiten dut eta etxea mendian nahi nuen. Desiratzen egoten naiz ostirala noiz iritsiko etxean gelditzeko, mendira joateko, lagunak etxera etortzeko... Gure bizitza ez da kalean egiten. Baserri zahar bat erosi nuen oraindik Parisen ikasten ari nintzela, gero Zarautzera bueltatu, ezkondu, eta 1995ean Aiara etorri ginen.

Niretzat kastigurik handiena da igandean guapa jarri eta Zarauzko malekoian ibiltzea. Baina zarauztar batzuentzat munduaren zilborra da, eta horrelakoak entzun izan ditut: *Aian? Lan asko duzu eta laster edukiko duzu dirua pisu bat erosteko hemen!*

Medikua, osteopata, erre-medio homeopatiakoak erabiltzen dituzu... nolatan?

Medikuntza ikasten ari nintzela, bi gurasoak hil ziren eta ez nengoen lan egin gabe egoteko moduan karrera bukatu bitartean. Hemen nuen aukera bakarra kamarera izatekoa zen. Lagunak nituen Parisen eta hara joan nintzen. Han, unibertsitatean ezagutu nituen osteopatia, homeopatia... Osteopatiaren logikarekin maitemindu nintzen: hau honegatik kaltetu egin da, orduan sendatzeko, alderantzizko bidea hartu behar da. Denetatik pixka bat erabiltzen dut izan nuen oso maisu on batek horrela erakutsi zidalako.



falta da, baita goiko lerroan elakrriketakoa nor den esatea ere

KARKARA

tsatzen zer egin behar duten, beti tentsio batean. Pentsa, oportetara joateko ere tentsioan jartzen gara! Eta kaltea gorde egiten da gorputzean.

Hala ere, lan egin behar dugu!

Bai, baina dena kate bat da. Lan egiten dugu dirua behar dugulako, zerbait egiteko, baina gure beharrak gutxitzen direnean, lan ordu gutxiago egiten dugu? Ba, ez! Egin beharko genukeena da: ikasketak bukatu eta 12 orduko lan eguna egin, kobratu ere bai, jakina, eta behar duzuna erosi: pisua, autoa... 40 urterekin? 8 ordu lanean, eta soldata beheraka... 50, 6 ordu, ikasi disfrutatzen bizitzaz, lasaitzen joan, zeren eta hezurretan igarri egiten da. Senarra eta biok saiatzeko gara neurri batean aplikatzen, zeharo ezin baita. Zaila da batzuetan, baina ez uste dugun bezain zaila.

Lan nekagarria al da zurea?

Fisikoki ez, baina psikologikoki bai batzuetan. Badago energia xurgatu egiten dizun jende mota bat, eta horrek gehiago eragiten dizu lan fisikoa baino. Nahiago dut 200 kilokoa, umore ona duena, eta ez 50 kilorekin beti kexaka dabilena. Adin batetik aurrera guztia ez da sendatzen, eta jendeak ez du hori onartu nahi. Nork bere mugak onartzen baditu, baikorrago izaten da eta eskertzen dizu egindako lana. Zein da txarra? Beti 25 urte eduki nahi duena! Pareta bat izatea aurrean, 'ya baina'... 'es que'... horrek nekatzen nau. Alderantziz, poza ematen dit bat etortzen zaidanean, okertuta, lo egin gabe, eta ikusten dudanean hurrengo egunetan pixka bat hobeto dagoela, horrek bete egiten nau.

Nahiago dut 200 kiloko bat, umore ona duena, eta ez 50 kiloko beti kexatzen egoten dena

Zuregana doanaren profila nolakoa da?

Denetik dago. Gaur egun, orokorrean, denok egiten dugu lan gaizki. Lehen pausoz pauso egiten zen lana; gaur egun dena da arrast! Baserritarra: bolakegiten egun osoan; eskuariarekin dabilena ere makinaren parean.

Adin batetik aurrera guztia ez da sendatzen, baina jendeak ez du hori onartu nahi

Pelukera: 8 ordu eskuak horrela. Karnizeroa: lehen, eskatu eta solasean gelditzen ziren; gaur egun, 2 ordu urdaiazpikoa xerratzen pasatzen du batek. Non edukiko du mina ba? Hartzen duzu lan bakoitza eta hor aurkitzen duzu arazoa. Eta hortik libratzen direnek, estresa dute, beti pen-

ITURRARANGO BILDUMA ABERASTEKO, LANDARE BEREZIAK EKARRI DITUZTE

Lorategi botanikoaren berri zabaldu dute Biarnon

Landetan (Frantzia) izan ziren Jose Almandoz eta Iker Luarizaierdi Iturrarango lorezainak Gaujacq jauregian antolatzen den landareen ferian, hilaren 13an eta 14an.

Aurtengoa izan da Aiako ordezkariek stand bat jarri duten aurreneko aldia, nahiz eta aurreko urteetan bisitan izan diren. Jean Tobyk antolatzailea urtero etortzen da Aiako feriara, eta berak gonbidatu zituen parte hartzera. Lorategia, parkea eta Aia bera promozionatzea zuten helburu, eta arrakastatsua izan dela iruditzen zaio Almandoz lorezain nagusiari: *Landareak zein informazio orriak eraman genituen, herria, parkea, lorategia eta nekazal turismoaren gaineko berri zabaltzeko. Bisitari asko landareen barietate zabalarekin harrituta gelditu ziren, guk tropikalak zein hotz handia egiten den lekuetan ematen direnak ditugu, eta interes handia sortu zuen hemengo mikroklimaren berriak. Landareak trukatu zituzten mintegi espezializatuak dituzte-nekin.*

Gaujacqekoa bezalako ferietan lorezainak espezializatu egin dira landare mota batean edo bestean, eta oinarri bera du Iturrarango feriak. Aiaren inguruan landareekin lan egiten dutenak animatu nahi izan dituzte mota bat



Gaujacq jauregian izan ziren Iturrarango lorezainak.

KARKARA

Landareei zein parke, lorategi eta nekazal turismoari buruzko informazioa eman dute

edo bestea aukeratzeko eta garrantzia horri emateko. *Oso lan baliotsua egiten dute espezialistek. Galtzeko arriskuan dauden aleak bilatzen dituzte eta ahal den neurrian ugaltzen*

du, gal ez daitezen. Hemen ez omen da hain erraz lortzen jendea, orokorrean, itxura politeko lore bila etortzen baita feriara eta ez landare bereziaren bila.

Hala ere, esperientzia aberatsa izan omen da, baita hemen egiten dena beste ikuspuntutik baloratzeko ere, eta esperantza dute datorren urtean apirilaren laugarren asteburuan egingo den ferian Gaujacqen Iturranen berri jaso duten batzuk azalduko direla.

LABUR

GIZARTEA Saioa Lertxundi

Saioa Lertxundi aiarrak Gipuzkoako Euskal Kantu Txapelketan abestuko du bihar, urriaren 27an, Villabonako Gurea Zinema Antzokian 18:00etan. Bizkaia Maite abestia kantatuko du banakako sailean, Kristina Solano trikitilariak lagunduta. Hiru sailetan, denera, 18 bakarlarri, 15 bikote eta 4 taldek hartuko dute parte. Gipuzkoako txapelketan hiru kanporaketa izango dira, eta Saioa finalera pasatzen bada Donostiako Antzoki Zaharrean lehiatuko da azaroaren 10ean, arratsaldeko 18:00etan.

Bestalde, lurralde ekitaldietan, epaimahaikideen aburuz hiru onenak sailkatuko lirateke lau urtez behin egiten den Euskal Herriko Euskal Kantu Txapelketaren final nagusian parte hartzeko 2008an.

KIROLAK Amilibia nagusi Anglirun

Nerea Amilibiak sekulako garaipena lortu zuen VII. Angliru gaineko igoeran, pasa den urriaren 14an. Asturiasko Mieres herrian (Espainia) izaten da urtero lasterketa hori eta aurtengoan 500 lagun baino gehiagok hartu du bertan parte. 12,5 kilometroko bidea da guztira, eta %23,5eko batez besteko aldapa tartean.

Sukalde eta bainuen erreformak

XANTI MUJIKA

Igeltseritza

699 46 76 21
943 13 10 37

Automóviles ZARAUZ

CITROËN ZEHITUZU DIRAZA

Itzuli batzuk eta ia bostak urte

ZARAUZ. TEL: 943 13 13 50

Peluteria eta estetika mistoa

ZARAUZ

- Tintak, depilazioa, epilazioa, masajeak
- Depilazioa, epilazioa, masajeak
- Antzoki, masajeak
- Depilazioa

San Nikolas, 2. Tel: 943 05 31 70

AIAKO LEIHOA

Hilerrietako zuhaitzak

Santu Guztien eguna laster dugunez, aiar eta oriotar ugari gerturatu-ko zarete bi herrietako hilerrietara. Euskal Herriko kanposantu gehienek antzera, bien inguruetan altzifre ize-neko zuhaitz ilun eta lerden batzuk ageri zaizkigu.

Mediterraneo itsasoko ekialdean duela gizaldi asko sortu eta errotu zen hildakoak lurperatutako inguruetan altzifreak landatzeko ohitura, doluminaren ikur; greko-erromatar garaietan itxaso horren inguruetakoa herrialdeetan sakabanatu zen ohitura hori eta Euskal Herriraino heldu.

Altzifreek hilezkortasunaren ahalmena zutela uste zuten antzinean, zeren eta bizi-iraupena oso luzea dute. Hori zela eta erabiltzen ziren hilerrietan apaingarri gisa ere,

hilezko gaitasun hori bertako zenduei nolabait ahalbidetu zietelakoan.

Bi ditugu, beraz, altzifreak hilerrietan agertzeko arrazoi nagusiak: hilezkortasun ikurizatea eta dolumina adieraztea. Azter ditzagun biak.

Altzifrearen hilezkortasuna latinezko izenaren sorreran dago *Cupressus sempervirens*. Zuhaitz horren egurra usaintsua eta ustelgaitza da; antzineko arotzek maiz landatzen omen zuten, hala-nola ur azpian erabiltzeko —Noeren Ontzia egiteko erabili ziren egurren artean altzifrearena

**Altzifreek
hilezkortasunaren
ahalmena zutela
uste zuten**

zegoela diote—eta ospemandiko eraikuntzetan: Salomonen Tenplua, Egiptoko piramideetan ehorzten ziren faraoien hilkutxetan, esaterako.

Doluminaren esanahia, berriz, mitoaren bidez eta olerkiz lausotuz erantsi zion altzifreari herriaren sormenak. Itxura denez, Apolo jainkoak Cipariso izeneko artzain gazte bat maitatzen omen zuen; artzain horrek, berriz, oso gogoko zuen basauntz sakratu bat hil zuen istripuz eta, ondorioz, tristurakerabat jotageratu zen. Bihozmin hori mendezmende izateko auke-

**Doluminaren ikur,
hildakoak dauden
inguruetan
landatzen dira**

ra eskatu omen zion Cipariso Apolori, eta horrek altzifre bihurtu omen zuen, honako hau esanaz: *Betikotasunean negartuko zaitut, eta betiko saminduen artean izan zaitez beren goibeltasunarekin bat eginez.*

Nahiz eta aipatutako hilezkortasuna horegon, izaki bizidunak direnez altzifreak ere badute bizi-muga, eta horretara heltzean ihartu egiten dira. Hori gertatu zitzaion duela urte batzuk Aiako Laurgain auzoko hilerrian zegoen altzifre luzeari.

Ordezko bat bertan landatu eta zainduko balitzake, gure aurreko belaunaldiak egindakoari jarraipen egokia emango genioke.

ANGEL LERTXUNDI IBARGUREN

TXOKOAK ETA JENDEA



Afaria Arrutinean

Argazkian azaltzen diren emakumeen arteko lauren urtebetezea zela eta, aitzakia polita aurkitu zuten afari on bat egiteko Arruti jatetxean, giro atsegin eta alaietan, argitu diguten. Hain ondo pasa zuten dagoeneko hurrengoarekin pentsatzen ari direla, parrandera horiek!

Mariana, Ainara, Aurora, Leire, Ana, Janire, Amaia, Maialen, Mirian, Ruth, Mirari, Lore, Andrea, Laida, Maialen, Laura, Sara, June, Malen Idoia, Aloña, Ilaski, Ane, Maria, Olatz, Elizabete, Ainhoa, Libe, Maddi eta Itxaso. Horra hor Orioko futbol taldeko nesken izenak. Ekipoaren gainean eta gustuko duten kirolaz jardun gara solasean.

LORE BERASALUZE

Nola sortu zen emakumezkoen futbol taldea Orion?

Jubenil-seniorrak: Duela hiru urte, 10 bat neskaz osatutako lagun taldeak futbolean jokatu nahi genuela eta, Orioko Futbol Taldera jo genuen gure proposamenarekin. Hori onartu bezain pronto egin genuen taldea osatzeko deialdia. Jendeari izena emateko aukera eman genion egunetan eta nahikoa jende elkartu ginen. Horrela sortu zen lehen taldea.

Kadeteak: Bigarren ekipoa aurten sortu da. Izan ere, ia-zko jokalaria asko jubenil izatera pasa dira eta beste taldea sortu dute. Kadete jarraitzen dugunok gurea osatzeko gutxiegi ginela eta, jende beharra genuela zabaldu genuen. Aiarrek berehala erantzun zuten eta taldea osatu genuen. 21 jokalaria gara orain.

Taldeakide berriak ezagutzeko aukera, talde gisa gure lehenengo kontaktua izan



KARKARA

ORIOKO FUTBOL TALDEKO EMAKUMEZKOAK

“Urtetik urtera neska talde gehiago sortzen dira futbolean”

zena, Donosti Cup txapelketan egin genuen.

Zailtasun edo oztoporik izan al duzue neskakizateagatik?

K: Bai, kanpoan jokatzeko dugunean aldagela txikiak eta eskasak jartzen dizkigute neskoak. Hainbeste jokalarizanda, leku zabal eta egokia behar dugu.

Partiden ordutegiak ere izaten ditugu istiluak edo kexak. Guri jartzen dizkigute ordurik txarrenak, inork nahi izaten ez dituenak. Goizean goiz edo eguerdi bete-betean jartzen dizkigute askotan lehiak. Azken aldian, etxean arratsaldean jokatzeko ari gara, baina ia beste kontu bat izaten da. Jokalarietako batzuk lanean joan behar izaten zuten eta mesedez ordu horretan partidurik ez jartzeko erregutu arren, ez ziguten kasu askorik egin. Aurten ez daukagu horrelako arazorik, ez baita inor lanean ari. Gainera, talde handia daukagu eta baten batek ezin badu etorri, asko gaude bera ordezkatzeko.

J: Ados gaude mutilei lehentasuna ematen dietela esaterakoan. Inor ez zaio gusatzeko igande goizetan jokatzea, baina jartzekotan guri jartzen digute. Ez du axola gure taldeak duen kategoria, lehenik mutilak dira.

Arbitroekin ondo moldatzen al zarete?

K: Gure kasuan arbitroak federatu gabeko emakumezkoak izaten dira gehienetan. Gizonezkoen kategoria guztietan, infantilak barne, epaile izateko ezinbestekoa da federatuta egotea. Emakumezkoen jubenil-seniorretan ere baldintza hori derrigorrezkoa da, baina gurean beharrezkoa ez denez, ez da betetzen. Horrela, askotan ez dira objektiboak izaten, talderen bateko entrenatzailea edo laguna izaten baita, eta horrek arrazoizko kexak eragiten ditu.

Gero eta neska gehiago al dabil futbolean?

K: Bai, pixkanaka-pixkanaka kiroletan nesken parte hartzearen gorakada nabari

da. Gure kategorian 19 talde gara, bi multzotan banatuta, 9 eta 10 taldekoak hurrenez hurren. Jubenil-senior kategorian 32 talde dira, hiru multzotan banatuta. Futbol 8an ere beste 9 talde daude. Urte tik urtera talde gehiago sortzen dira. Lehendik gabiltzan jokalariontzako ere aukera gehiago dago, etxetik hurbil aritzeko aukera dugu orain.

Jende asko etortzen al da zuen partidak ikustera?

K: Azken aldian, bai. Orain jokari gehiago garenaz, familiar eta lagun gehiago etortzen dira gu ikustera. Harmaileen erdia betetzen dute. Poza ematen du jendea ikusteak. Urdu-ritasunak ere gehitu egiten dira, animoekin batera, baina askoz gusturago aritzen gara nork animatu baldin badaukagu.

J: Gizonezko jubenilen edo regionalen atzetik baldin badugu gure partida, jende gehiago izaten da harmailetan. Haiena amaitzean gure ari begira geratzen dira batzuk eta beste askok alde egiten du.

Antillaren aldean, zelaia herrian bertan izanda, jende gehiago izaten da orain. Eta kanpoan jokatzeko ditugun lehietan, Mendibeltzen baino askoz jende gutxiago izaten da ikusten.

Futboleant aritzeko mutilak ala neskak nahiago?

J, K: Mutilak beren artean jokatzeko dute, ez digute baloirik pasatzen. Beraz, nahiago dugu neskak jokatu, baloia ukitzeko aukera behintzat izaten dugu eta. Hala ere, mutilekin gehiago ikasiko genuke berek jokua emanez gero.

Eta nola doakizue aurtengo denboraldia?

K: Hirugarren goaz mementuz, 11 punturekin. Sei partida jokatu ditugu, horietatik erdiak irabazi, 2 berdindu eta bakarra galdu. 21 gol dauzkagu alde eta 16 kontra. Gure aurreko taldeak puntu bakarra ateratzen digu partida bat gutxiago jokatu. Atzetik, berriz, 7 punturekin beste lau talde ditugu.



Gol askoko partidak izan dira gureak. Horren seinale da gure *pitxitxi*-a Andrea; 8 gol sartu ditu 5 partidetan, 4 bakar batean.

Azaroaren 10ean amaituko dugu denboraldiko lehen fasea. Saillapen orokorreko aurreneko 5 taldeek Liga jokatuko dute beste multzoko

buru diren 5 talderekin batera; gainontzekoek Kopa. Joan-etorriko partidak izango dira.

J: Kadeteen antzekoa da gure denboraldia. Gure multzoan 10 talde gara eta beste bi multzo daude kategoria berean, 10 taldekoa bat eta 12koa bestea. Orain arte 5 partida jokatu ditugu, 2 irabazi



KARKARA

eta 3 galdu. 6 punturekin 8. gaude sailkapen orokorrean eta 4 gol ditugu alde eta 14 kontra. Azken partida sailkapenaren buru den taldearen aurka izan dugu, Hernaniren kontra.

Aurrera begira futbol jokalaririkusten al zarete?

K eta J: Futbola hobby bezala daukagu gehientsuenok. Ahal den arte futboleant jarraitu nahi dugu. Argi daukagu hemendikezin dela bizi. Emakumezkoen futbolak ez du ematen eta ez du inoiz emango. Aurrerapausuak ematen dira, baina ez hortik bizitzera ino.

SORRERA

“Hamar bat neskaz osatutako lagun taldeak futboleant jokatu nahi genuela eta, Orioko Futbol Taldera jo genuen gure proposamenarekin. Hori onartu bezain pronto egin genuen taldea osatzeko deialdia”

OZTOPOAK

“Mutilei lehentasuna ematen diete. Inori ez zaio gustatzen igande goizetan jokatzea, baina jartzekotan guri jartzen digute beti. Ez du axola gure taldeak duen kategoria, lehenik mutilak dira”

ARBITROAK

“Gizonezkoen kategoria guztietan, infantilak barne, epaile izateko ezinbestekoa da federatuta egotea... baina emakumezkoen kadetetan beharrezkoa ez denez, ez da betetzen. Horrela, askotan ez dira objetiboak izaten, talderen bateko entrenatzailea edo laguna izaten baita arbitro”

AUKERAK

“Nahiago dugu neskok gure artean jokatu, baloia ukitzeko aukera behintzat izaten dugu eta. Hala ere, mutilekin gehiago ikasiko genuke berek jokua emanaz gero”

HARMAILA

“Antillaren aldean, zelaia herrian bertan izanda, jende gehiago izaten da orain partidak ikusten. Eta kanpoan jokatzeko ditugun lehietan, Mendibeltzen baino askoz jende gutxiago izaten da ikusten”

ETORKIZUNA

“Ahal dugun arte futboleant jokatzeko jarraitu nahi dugu. Argi daukagu hemendik ezin dela bizi. Emakumezkoen futbolak ez du ematen, eta ez du inoiz emango. Aurrerapausuak ematen dira, baina ez hortik bizitzera ino”

Guk ez dugu batzokia erasotu

Aurreko asteko EAJren idatzia irakurtzearekin batera, lotsa eta amorrua sartu zen gure barrura. Hasteko, garbi utzi nahi dugu Gazte Asanbladak ez duela inolako zerikusirik izan zuek hainbeste-ko matraka eman duzuen behar fisiologiko horien inguruan, eta lotsagarria dela inongo frogarik gabe, gauzak bide onetik eramaten ari den herriko gazte talde bat horrela salatzeara. Gaztetxea eskatzen duten pegatina horiek bakarrik dira gazte asanbladari dagozkionak.

Baita ere, esan nahi dugu, Gazte Asanblada herriko gazte guztiei irekita dagoela, ditugun arazoei aurre egiteko erreminta gisa eta, beraz, badugula zilegitasuna eta babes herriko gaztedia ordezkatzeko gaztetxearen aldarrikapena egiteko unean. Horretarako Orioko Gazte Aisialdiaren

Diagnostikoan oinarrituta, gukegingenion gonbitea Udalarari, horrela lehen pausua guk emanik, eta ez zuek kontatu duzuen moduan. Horren ondorioz etorri dira eginiko beste bilera guztiak, eta baita Gazte Asanblada eta Udaren arteko elkarlanerako hitzarmena ere.

Bukatzeko, ekintzak egiten jarraituko dugula jakinarazten dugu autogestioaren ideia defendatuz, esan bezala bake eta festa giroan, herriko talde guztiei errespetu eta konfiantza guztia eskainiz eta tratu bera eskatuz, zuen aurreko gutuna lekuz kanpokoa eta iraingarria iruditzen baitzaigu. Gure lan modua, forma onak, herriarekiko errespetua eta Orioko gaztediak eskaintzen digun babesaren testigu izan nahi baduzue, agerzaitez telarunbatean nahi duzuen plaza ingurura, han izango baikara Gazte Eguna ospatzen, Gaztetxe autogestionatua aldarrikatzeko.

ORIKO GAZTE ASANBLADA

Txurrumuskik herriarrei

Gutun honen helburua, herriarroi informatzea da.

Aspalditik daude herriko haur eta gazteak euren aisialdia igarotzeko lekurik gabe. Hala ere, badirudi "Ametsa" gaztelekuaren proiektua aurrera doala (azken plenoan enpresa pribatu batek hartuko zuenaren aldeko botua eman baitzuten alderdi politiko batzuek, EAE-ANV-k izan ezik) eta beraz, aurki enpresa hori aukeratzeko lehiaketa martxan jarriko da.

Txurrumuski K.A.E. Orioko aisialdi taldea izanik, eta bertako haur eta gazteekin harremanetan egonda, gaztelekuaren kudeaketa guk geuk eramateko proposamenaz lutzatzen genion Orioko Udalarari. Honen erantzuna, TXURRUMUSKI K.A.E. enpresa pribatu bihurtzea eta egingo den lehiaketan parte hartzea izan da.

Honela kontatuta, guztia bide onetik doala dirudien arren, ez da hala. Lehiaketa horretan parte hartzeko (luzatu dizkiguten pliegoen arabera), ongi hornitutako enpresa bat izan behar da, ekonomia aldetik ongi dagoena alegia. Hori dela eta, Txurrumuski ez da zaku beran sartzen. Hala eta guztiz ere, ekonomiarikasu handiegirik egin gabe eta gure borondatez eta ilusioz lagunduta, Txurrumuskik lehiaketa horretan parte hartzea erabaki du.

Jakin badakigu lehiakide gogorrak ditugula aurrean eta baita baldintza berdinetan jokatzen ari ez garela ere; baina, hala eta guztiz, ez dugu etsiko eta saiatu egingo gara, herriaren alde!

Gure egoeraren berri zehatzago bat eman ahal izateko, azaroaren 5ean bilera bat egingo dugu kultur etxean. Beraz, interesatuta zaudeten guztioi gure gonbidapena luzatzen dizuegu.

TXURRUMUSKI K.A.E.

Aian langilea behar dugu Karkararen erredakzioan aritzeko



Karkarak langile bat hartu nahi du, aldizkariaren Aiako lan taldean aritzeko. Interesa baduzu, aldizkariaren lokalera jo ezazu, lanpostu hori betetzeko eskatzen diren baldintzak eta eskaintzen diren ordainsariak eta gainontzekoak ezagutzeko. Telefonoz ere hots egin dezakezu: 943 83 15 27. Izena emateko azken eguna azaroaren 5a izango da.



SAN MARTIN JAIAK

URDANETA

AZAROAK, 4, IGANDEA, ZAHARREN EGUNA

11:30 Meza nagusia

12:15 San Martin pilota txapelketako finalak.
Jarraian giza proba eta ahari jokoak
trikitilari eta bertsolariek girotuta.

14:30 Bazkaria Indamendi elkartean.

22:30 Kalejira bertsolari eta trikitilariekin.

22:30 Izer eta Alabier Ximor tabernan.

AZAROAK, 9, OSTIRALA

22:30 Mus txapelketa azkarra Indamendin.

23:00 Erromeria Ansorregi eta Larrañagarekin.

AZAROAK 10, LARUNBATA, GAU PASA EGUNA

12:00 Anzokoen herri kirolak.
Parte hartzea librea da.

16:30 Haurrentzako antzerki emanaldia Txiribuelta taldearen eskutik.
Ondoren, txokolate beroa denontzat.

Azken Jazbanak Laja taldearen eskutik frontoian.

23:30

ORTZAIA

AZAROAK, 8, osteguna

21:00 Mutil ardokoen afaria.

AZAROAK, 9, OSTIRALA

22:30 Mus txapelketa.

AZAROAK 10, LARUNBATA

21:00 Bertso afaria.

AZAROAK, 11, igandea, san martin eguna

10:00 Meza nagusia. Ondoren
Toka eta Sagarbiltze txapelketa.

17:00 Herri kirolak.

AZAROAK, 16, OSTIRALA

23:00 Gozategi taldearekin erromeria.

AZAROAK 17, LARUNBATA

21:00 Oilasko biltzera irteera.

16:30 Haur jolasak Txurrunuskik antolatuta.
Ondoren txokolatada mundiala.

22:00 Bertso saioa Etxeberria, Loidisaletxe,
Unai Agirre eta Iker Zubeldiarekin.
Ondoren Tapia eta Leturia..

AZAROAK 18, IGANDEAA

12:00 Estropadak: San Martin jailetako
VIII. Ikurrina. Ondoren, bailarakoen
bazkaria bertsolari eta trikitilariak girotuta.



EGUNEROKO BERRIAK, ARGAZKI GALERIA, BLOGAK, ZORION AGURREN TXOKOA ETA BESTE HA

Informazioa, egunero eta modu izango duzue azaroaren 5etik a

Honako atal hauekin osatuko dugu karkara.com

EGUNEKO BERRIAK

Aian eta Orion sortzen diren albisteak emango ditu Karkara.com. Denbora kontuengatik aldizkarian tokirik ez eta jarri gabe geratzen ziren hainbat notizia eskaintzeko moduan izango gara aurrerantzean. Herritarrek ere gertatzen ari denaren berri eman ahal izango diguzue mementoan eta baita albisteari buruzko iritzia eman ere eztabaida foroan.

IRUDI GALERIAK

Argazkiek garrantzia handia izango dute aldizkariaren webgunean. Atalka sailkatuko dira eta herritarrek aukera izango duzue zuek egindako argazkiak bertan sartzeko. Ez hori bakarrik, gustuko irudirik topatuz gero baita erais- teko aukera ere.

BLOGAK ETA BLOGARIAK

Blogeak ere izango dute bere txokoa Karkara.com-en. Zenbait herritarren blogekin abiatuko da atala, hasiera batean. Horiez gain, bi herrietako alderdiei eta alkateei gonbita egin diegu nahi dutenek herritarrekin komunikazio zuzena izan dezaten. Batzuek onartu dute eta beste batzuen erantzunik ez dugu jaso oraindik.

ZORION AGURRAK

Zorion agurren tarteak aukera emango dizue nahi duzuen lagun, senide, koadrila... zoriondu edo mezu bat helarazteko. Erraza izango da, mezua idatzi eta argazkia sartu besterik ez duzue egin beharko.

AGENDA

Antolatutako ekitaldi eta ekimenen berri izango duzue egunero, hutsik egin gabe.



AINBAT ZERBITZU ESKAINIKO DITU KARKARAREN INTERNETEKO ATARIAK

zuzenean, jasotzeko aukera urrera **www.karkara.com-en**



ADARRETATIK HELDUTA

Gazteen ekipamenduak

Duela urtebete amaitu zen Orioko Gazteen Aisialdiaren Diagnostikoa, Orioko Udalak herriko gazteria aztertzeko ateratako bekari esker. Ingaruko herrietan gertatzen zena ikusirik eta lan horri esker, ikasi genuen gazteria eta horien beharrei erantzuteko aukera asko daudela. Laburtuz, esan genezake hiru adin talde desberdintzen direla eta talde bakoitzarentzat ekipamendua egokitzea izan ohi da udal askok emandako erantzuna. Lehen taldea haurrek osatzen dute, 11-12 urterarteko gazteentzat ludoteka izaten da ekipamendua erabiliena. Bigarren adin taldea nerabeak dira, 12-16 urte bitartekoak, horientzat gaztelekua izan da beste udalek emandako erantzuna. Azkenik, 16 urtetik gorakoentzako gaztetxea da herri batzuetan eman izan den aukera. Gaztetxea ekipamendu autogestionatua da; gaztelekua, ordea, hirugarren batek gestionatzen duen ekipamendua.

Baina, herri guztietan daude gazte adin talde guztientzat ekipamenduak? Ba, egia esan, ez. Oso gutxi dira hirurak dituzten herriak. Herriko egoera aztertu eta toki bakoitzean behar handienari eman zaio erantzuna eta hori da Orion egin genuena.

Garbi ikusi genuen, ekipamendua azkarren behar zuen taldea nerabeak zirela, eta horretarako gaztelekua



MIKEL IZQUIERDO
UDALEKO KIROL TEKNIKARIA

Dirudienez, orain, gazteen aldetik gogoa badago Gaztetxea martxan jartzeko, baina gaitasuna pixkanaka erakutsi beharko dute. Aukera ederra Gazte Eguna izango da

egitea erabaki zen. Ziurrenik urte hasieran martxan izango da.

Hortik aurrera, beste adin taldeen beharrak aztertu eta erabaki beharko da ea ekipamendu gehiago egokitu behar diren edo ez. Aurreko legealdiko zinegotzia harremanetan jarri zen Ijitoak taldearekin, 16 urtetik gorakoen beharrak aztertzeke, bai-

na garai hartan, ekipamendu autogestionatua aurrera eramateko prest ez zeudela erantzun zuten. Dirudienez orain, gazteen aldetik gogoa badago gaztetxea martxan jartzeko, baina gaitasuna pixkanaka erakutsi beharko dute; aukera ederra Gazteen Eguna izango da.

Herrian gaztetxea egin behar den edo ez ondo aztertu beharko da. Beti entzun dugu gazteen aisialdirako Orion ez dagoela ezer, baina hori ez da egia. Azterketa egin ondoren, gai horietan adituak direnak ere, Aska-gintza adibidez, Orioko aisialdi eskaintza egokia zela jakinarazi ziguten: kirol taldeak, musika eskola, KZ gunea, Errikotxia taldea...

Horrez gain, fenomeno berri baten sorrera kontutan eduki beharko dugu, lokal pribatuaren alokairua. Gaztetxea duten herrietan ere alternatiba horrek indar handia hartu du, gaztetxea azkenean, gazte talde bakar batek okupatzen baitu.

Dagoeneko badira sei lokal pribatu Orion.

Guizti horrekin gaztetxerik egin behar ez denik ez dut esaten, baina bai behintzat azterketa sakona egin beharko dela erabaki hori hartu baino lehen. Beti bezala, gazteen iritziak eta proposamenak kontuan eduki beharko ditugu, baita haien jarrera ere, eta mementuz, kasu zehatz batzuk ahaztuta, planteamenduak eta jarrera ego-kiak dira.

NIRE HONETAN

Gogorra da andre egitea

Banoa amatxo eta aitatxorenetik. Ia hogeita hamar ditudan honetan gurasoena den lore-denda-etxera noa. Denok *guay* garen gizarte 'garatuan' pauso batzuk eman beharrak daude eta derrigorrez: gutxienez 50 kilo balio dituen etxea erosi, ezkondu, umeak izan eta monobolumena ekarri, astero pelukeriara joan, mendirako eta bizikletarako goitik behera ekipatu, urtero gutxienez superbidaia bat egin... Ekipatu naiz bizikletarako (orain joan egin behar), urtero superbidaia egiten dut, auto propioa ere badut... independizatzea falta zitzaidan. Gogorra da gero gazte izatetik heldu izatera pasatzea.

Gogorra, bai. Lehengoan gaztetxo batek parean pasa eta *andrea!* deitu zidanean esan nuen nire artean: *Ene, hireak egin din... Horrela ikusten haute!* Askok aldatu naiz, hori badakit. Baina ez nekien hainbeste igartzen zitzaidanik. Helduen mentalitatea ari zait erraietaraino sartzen, konturatu gabe. Pertsona arduratsua beti izan naiz, baina aspergarria izatera pasatzen ari naiz, eta horrek asko kezkatzen nau. Hala ere zuek lasai, denda berrira noa eta gustura bizi naiz, eskaparaterako behintzat.

ENERITZ ODRIOZOLA

IRAKASLEA

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak:

- Arrain zopa
- Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **OKIO** Tel.: 943 83 00 05 / 943 13 25 32

SEGA

ekintzak, baliak, jarrerak

Santio Erreka guzos
Tfnos: 943 83 07 16

URAITZ

kuriosologia

Antropologia

Enlata 3 Tfnos: 943 83 18 97

MOILA BAZTERRETIK

Guk dugu giltza!



AINARA PEÑA

Batzuetan monotematika bihurtzen naizen sentsazioa daukat. Kontua da oso intentsoki bizi ditutala momentuak eta horrelakoetan inguruan gauza gehiago gertatzen direla ahaztu egiten zait. Nire defektuetako bat hori da. Horren adibi-

de da Goiko Kalea.

Lau urte egitera doa bertan bizi naizela, baina txikitant denbora asko pasa nuen bertan. Gurasoak Beheko kalean bizi arren, amona goiko kaletarra da, eta nire heziketaren zati handi bat han jaso nuen: bertako oroimen ugari ditut. Kale bakoitzean kuadrilla bat, zaharrenaren eta gazteenaren artean hamar urteko aldea ere bazegoen. San Martin ondoan zegoen piñudira joaten ginen txabolak egitera. Kale batzuk beldurgarriak iruditzen zitzaizkidan, bertan lagunengatik batere errukitu gabe jarduten ziren matojon jolasten. Festak ere oso gogoan ditut, Goiko kaleko kabezudok korrika gehien egiten zutenak ziren (aldapa behegaratik izango zen seguraski).

Hemen bizitzen jarri nintzenean momentu guzti horiek berriz ere burura etorri zitzaizkidan, horretaz gain kriston kuadrilla juntatu ginan; hor ere hamar urteko diferentzia badago zaharrenaren eta gazteenaren artean. Baina denon artean festen txabola berriz ere eraiki dugu Pilliku aldean —San Martineko piñudian ez, iada ez dagoelako.

Agian batzuentzat gure dibertsiorako antolatzen dugun zerbait da festena, baina niri oilo ipurdiak ateratzeko zerbait da. Pillikun zerbait xumea prestatu eta jendea gurekin parte hartzen ikusten dudanean. Orain ez dut matojoan jolastetzen kaletik pasatzeko beldurrik. Orain beldurtzen nauena, horrelako egitasmoak aurrera eramate-

Beldurtzen nauena, egitasmoak aurrera eramateko laguntza ukatzen duen jendea da

ko trabaketa laguntza ukatzen duen jendea egotea da. Hala ere Goiko kalean dudak kuadrilla jator, langile eta iraukorri esker zailtasunak gainditu eta aurrera dihardugu gure helburuekin. Hurrengo urterako aldaketak aurreikusten dira, eta ziur nago aurrera egingo dugula. Izango duzue nire monotematikaren berri. Eta aipatutako gauza xumeetan parte hartzen duzuen guztioi eta kuadrillari zorionak, eskerrik asko eta Gora Goiko Kale!

Faroeko bakailaoa daukagu

ITSAS MENDI

gutiziak

Eusko Gudari, 5 Tel: 943 24 87 74 Orio

Platerak ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendako industriarako

940-88 09 45 / 819 60 23 35

ZABAUTZ

ITZALA

kartetan jokatzen ari zaren

tel. 943 83 12 59

KARKARA.COM

tailer mekanikoa

AUTO-LAN C. B.

urrutira joan gabe talde berria zure zerbitzura

Pelotari kalea, 5 ORIO

943 83 00 34

GOZATEGI

FRYTA-DENDA

Eusko Gudariak 11

943 83 12 81

SOLOZABAL

autoeskola

Eusko Gudari, 30-1. ezk

telefon: 943 83 08 12

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta enrentak

Telefax: 943 83 36 Eusko Gudari, 3

KRITIKA



Patxo Telleria eta Mikel Martinezek gogotik barre eginarazi zieten kultur etxera agertutakoei.

KARKARA

Attrezzorik gabeko eszenatokiak

Atrezzorik gabeko eszenatokiak, ikuskizunaren ardatza gidoia izango dela aurreratzen du. Obraren tituluak berriz, dudarik gabe euskararen (hizkuntzaren) inguruko obrabat dela adierazten du: *Euskera sencilloaren manifestoa*. Antzezleek aretoko sarrera aukeratu dute agertoki, kaletik zuzenean datozenaren itxurak eginaz. Dakarten itxurak grazia ematen du. Dagoeneko ikusleak argi dauka: aktoreak barre eginaraztera datoz.

Bi euskaldun berri euskaltegiko pasadizoak konta-

tzen, soldaduskako batailak bailiran. Zenbaitetan komiko, zenbaitetan pailazo, izerdi patsetan aktoreak ikusleari barre eginarazi nahian. Algararik ez da falta, ezta asperdurarik ere. Betiko txisteak, betiko aipuak, inoiz huts egiten ez duten topikoak. Beti egiten du grazia pertsonaia ezagun bat imitatzeak edota ahoskatzea zaila den aditzekin hitz korapiloak sortzea. Eta manifestua? Guzti horrek osatzen ote du euskara sencilloaren manifestua? Ez. Manifestua azken momentuan irakurriko dute, eta badirudi, aldiz-

kari ofiziala irakurtzen ari direla.

Nahiko barre egin ondoren, halako hutsune bat sortzen dute horrelako lanek. Euskal antzerkian oro har joera hori nabarmentzen da: barre eginaraztea, antzerkia hori baino gehiago izan daitekeenean. Edozein gai jorratzeko, aurkezteko, planteatzeko, debatzeko balio dezakeen baliabide bat da antzerkia. Esperimentaziorako, sorkuntzarako espazioa da eta espazio horrek ikuslearengan zuzen-zuzen eragiteko boterea badauka.

ARANTXA ARRILLAGA

IKASLEAK IDAZLE



JONE URANGA |

DBH 4. MAILA

Gaztelekua

Orioko gazteak, astegun eta asteburuetan, nora jo ez dakigula ibiltzen gara. Leku egoki eta eroso bat aurkitu nahiko genuke, eseri eta lagunekin hitz egiteko edota adin tarte ezberdinetako koadrilak bildu eta elkarrekin kartetan jolasteko... elkar ezagutzeko.

Hainbat manifestazio eta bilera egin dira herrian, gazteleku bat egiteko proiektua abian jarri zen arte. Ordutik, denbora mordo pasatu da eta gaztelekua egin behar duten etxetxoak berritu duten arren, oraindik eraikina bakarrik izaten jarraitzen du, ireki gabe baitago. Ondorioz, gazteak oraindik soluziorik gabe gaude. Bada garaia arazo horri irtenbidea emateko!

Aspaldidanik, hainbat oriotarrek amestu duten lokala irekitzeko zain gaude, gure protesta oihuak amaitu eta poztasun oihuak entzuteko garaia badelakoan baikaude.

tel/fax: 943 89 00 69
Bikika kalea, 4. 20.000 ZARAUZ

URBIDE

ITURGINTZA, BEROGINTZA
GASA, BAINU ERAKUSKETA

**ASADOR
XIXARIO**

Lasgo-Garret Kalea 2
Tel: 943 800 019 - 08019

ZUMINTZA
Ikasleentzako
liburuen
merkatua
Gazte Zentroa eta etxeak

SOLARIUM

tel: 943 83 17 56

ODITZ

Liburu zahaleko liburutegia
Gazte Zentroa eta etxeak

tel: 943 83 00 89

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Bertsolaritzak hitz egiteko aukera ematen du, leku guztietara sartzen ari da eta garai berrietara oso ongi egokitu da.”

XABIER SUKIA

Bertsolaria
Berria
2007/10/20

“Gauza badira Fraga, Suarez eta halako pertsonaiak demokraziaren aitaponteko izendatzeko eta frankismoaren kontra buru-belarri ibilitako alderdi bat legez kanpo uzteko, gero zer kopetarekin hitz egin behar dute memoria historikoaz?”

ANTXON GOMEZ

EAE-ANVko idazkaria
Berria
2007/10/21

OSPAKIZUNA



San Migel eguna aukeratu du

Ezin zen bestela izan: Karmele Ibarrola eta Jose Inazio Alustiza *Palazio*ren semeak San Migel eguna aukeratu zuen gurasoak ezagutzeko, bertako beste guztiak festara dena emanda zeudela!

Irailaren 29an jaio zen Jokin eta ez du aitzakiarik bilatu behar-ko urtebetetzea ospatzeko, bertatik bertara izango baitu aukera urtero-urtero. Gustura daude gurasoak, eta amak kontatu digu aitaren kantuek lagunduta lasaitzen dela semea.

Aurten auzoko festetan buru-belarri murgiltzeko aukera murriztu bazion ere, badirudi besteok errekonozitzen diogun iaotasuna semeak ere estimatzen diola!

ZORIONAK!



KARKARAREN banatzaileei

Hamabostero-hamabostero sekulako asto lanak hartzen dituzte KARKARA buzoietan banatzen duten gazteek, bai Orion eta bai Aian. Ez da lantegi erraza eta bai, ordea, gehiegietan, esker txarrekoa: kexak aditu behar, protestak, *Aizue! nire etxean ez duzue bota...*

Banatzaileek, jakina, hanka ere sartzen dute noiz edo noiz, eta portalen bat KARKARarik gabe utzi (halakoetan, faborez, eman abisua guri, eta konponduko dugu); baina, jeneralean, oso ondo egiten dute beren lana eta guk esker oneko hitzak besterik ez ditugu berentzat.

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu. ☒

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe ☒

Lan txukuna eta merkea ☒

TH001 943 83 59 00

HI

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8
TEL. 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38

kutxa

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

KUTXA

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

ORAIN DELA 25 URTE

PSOEK gehiengo absolutua lortu zuen hauteskundeetan

Orain dela hogeita bost urteko urriaren 28an Madrilgo Kongresu eta Senaturako hauteskundeak izan ziren. Aspaldiko partez, errepublika garaitik, ezkerreko alderdi batek irabazi zituen hauteskundeak, gehiengo absolutua lortuta, gainera. Partehartzea oso-oso altua izan zen, %75,67koa hain zuzen ere. Hauteskundeen ondorenean Felipe González izendatu zuten presidente.

Hauexek izan ziren emaitzak estatuan, aurreko hauteskundeetakoekin, 1979koekin, alderatuta.

1979an UCDk 168 eserleku lortu zituen, PSOEk 121, PC-k 23, APk 9, EAJ-k 7, HBk 3 eta EEK 1.

1982an, berriz, UCDk 12 eserleku, PSOEk 201, PC-k 5, APk 106 EAJ-k 8, HBk 2 eta EEK 1.

Orioko emaitzei dagokienez, 1979an EAJ-k 723 boto lortu zituen, HBk 455, EEK 372, UCD-PDP-APk 222, PSOEk 220, PCEk 23.

1982an, EAJ-k 1.009 boto lortu zituen, HBk 553, EEK 306, UCD-PDP-APk 118, PSOEk 394, PCEk 6.

AZKEN ESTROPADA

Urriaren 2an eta 3an Espainako Txapelketa jokatu zen Nerbioi ibaiaren uretan, Portugalete eta Aretako horretan. Estropada horrekin buka-

1982

URRIA

Urriaren 26an lehenengo ertzainak atera ziren kalera, eraikuntza ofizialak zaintzeko. Guztira 278 ertzain

Garcia Marquezek irabazi zuen literatur Nobel saria, Bakearena arma nuklearren aurka lanean aritzen ziren bi diplomatikok

Touseko urtegia zartatu zen Valentzian, euritearen ondorioz. 38 lagun hil ziren eta kalte izugarriak eragin

era eman zitzaion uztailaren 26an hasitako denboraldiari. Urriaren 2an, larunbatarekin, jokatu zen lehenengo estropada. Txanda bakoitzeko lehenengo biek jokatu zuten hurrengo eguneko ohorezko txanda. Jende gutxi bildu omen zen bertara.

Lehenengo txandan Kaiku izan zen garaile, bigarren postuan Zumaia sailkatu zen, hirugarrenean Meira eta lauugarrenean Zierbena. Bigarren txanda, berriz, Algortak irabazi zuen, 2. Orio izan zen, 3. Cabo da Cruz eta 4. Castro.

Hurrengo egunean ere Kaiku irabazi zuen estropada, 19' 49" denborarekin, 2. Zumaia 20' 01", 3. Algorta 20' 08" eta 4. Orio 20' 16".

Bigarren txandan 1. Meira izan zen, 2. Zierbena, 3. Cabo da Cruz eta 4. Castro.

Kaiku horren denboraldi ona egin zuela saritzeko, Kortak Kaikuko urrezko domina jaso zuen, Sestaok Kaikuri egindako omenaldian, Kaikuko urrezko domina jaso zuen bigarren arraunlaria izan zen.

SARITAN IRABAZITAKO DIRUA

Estropada gehienak Kaiku irabazi zituenez, bera izan zen lehenengoa irabazietan. Kaiku 3.140.000 pezeta eskuratu zituen, Zumaia 2.200.000, Oriok 1.790.000, eta Santurtzik 1.760.000.

JAIOTAKOAK

- Mara Manterola Garrido, Orion, urriaren 18an.
- Aimar Librada Etxarte, Orion, urriaren 11n.
- Irati Lekuona Campos, Orion, urriaren 8an.
- Iraia Perez Gozategi, Orion, urriaren 4an.

EZKONDUTAKOAK

- Ez da ezkontzarik egon.


HILDAKOAK

- Ez da hildakorik izan.

Aurreko alean jaiotako haurren zerrendan honako akatsa zuzendu nahi dugu: Unax Uranga Aldanondo da izena, eta ez Unax Uranga Gama, guk hasieran argitaratu bezala.

Eskela edo urteurreneko gogoangarria KARKARAN jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:

943 83 15 27



SHANTI ARRIETA | IKASLEA

“Ate asko ireki dizkit euskalduna izate hutsak”

Itzulpengintza eta Interpretazioa ikasten ari da Shanti Arrieta Gasteizko EHUKo kanpusean. Iazko ikasturtea, ordea, Quebecen egin zuen. Horren berri eman digu.

Zergatik Quebec?

Kanpora ikastera joatea leku zein jende ezberdina eza-gutzeko aukera paregabea iruditu zitzaidan. Gainera, kome-ni zitzaidan euskara edo gaztelania hitz egiten ez den herrialde batera joatea, beste hizkuntzaren batean trebatzeko. Ez da gauza bera asteen frantseseko bi klase izatea, edota 24 orduak frantsesez jardutea. Hizkuntza bat ikasteko horrelakoak egin behar direlakoan nago.

Hasiera batean Moskura joatekoa nintzen, errusiera ikasten ari bainaiz. Ez zen posible izan eta Quebecera bidali ninduten. Iazko abuztuan abiatu nintzen, eta ikasturte osorako joan banintzen ere, iraila erdi aldera arte bertan geratu nintzen. Oso gustura nago Quebec ezagutu izanaz, izugarrizko esperientzia izan da eta.

Nolakoa da hura?

Quebec, Ipar Ameriketako baldin badago ere, hiri europarren antza du, arkitekturari dagokionez, gehienbat: harresiz inguratutako Ipar Amerikako hiri bakarra da. Brujas hiria gogorarazi zidan.

Quebec herrialdea ikaragarria da, Euskal Herria baino 80 aldiz handiagoa, Suedia, Frantzia, Erresuma Batua eta Alemania elkartuta adinakoa, eta 7 milioi biztanle ditu. Natur-parke mordoa du, izugarrizko parajeekin. Besteak beste, baleak zeuden fiordo batzuk bisitatu nituen, garai batean euskaldunak bale



Urtebete pasatxo egin du Shantik Quebecen.

KARKARA

Kanadaren parte den arren, Quebec herri bezala identifika daiteke, hizkuntza, kultura, ohitura, historia... ezberdinak baititu

arrantzan ibiltzen ziren lekuak, hain zuzen ere.

Egun Kanadaren parte den arren, Quebec herri bezala identifika daiteke, hizkuntza (frantsesa), kultura, ohitura, historia... desberdinak baititu. Independentziaren aldekoak izan ala ez, bertakoek argi

Quebecoko biztanleriaren % 82ak frantsesa du ama hizkuntza, eta gainerakoak ulertzeko gai dira

dituzte desberdintasunok, eta harro daude horretaz. Euskaldunekin eta Euskal Herriarekin oso identifikatuta sentitzen dira, eta euskaldun izateak jende asko ezagutzeko balio izan dit, ate asko ireki dizkit. Hemengo egoera politikoaz galdera egiten zidaten,

interesa agertzen zidaten.

Politikaz gain, Euskal Herriaren oso ezberdina al da?

Bizimodua ezberdina da. Bertako gazteek oso gazte alde egiten dute etxetik, horretarako erraztasun gehiago ditzute eta. Soldata arrunta duen bikote batek 5-6 urtetan ordain dezake etxea. Hala behar luke hemen ere.

Bestalde, garai batean frantsesari eusteko nahikoa lan izan bazuten ere, egun bertako hizkuntza ofizial bakarra da. Quebecoko biztanleriaren % 82k frantsesa du ama hizkuntza, eta gainerakoak ulertzeko gai dira. Hemen, berriz, euskara ofiziala den lekuetan (EAE-n zein Nafarroan) gaztelaniak ofizialaren statusa du, eta horrela doakigu: Euskal Herrian bizi garenon artean % 30 bakarrik baita euskalduna. Gure administrazioetako ardura-dunentzat adibide polita izan daiteke Quebec.

Eguraldia erabat muturrekoa da: negu osoan izan dugu elurra, eta -40°ko tenperatura ere izan dugu. Ekainean, berriz, 44° markatu zuen termometroak Montrealen. 4 hilabetetan tenperaturak 84 graduko aldea izaten du; sinesgaitza!

Itzuliko zinateke?

Aukera edukiz gero, orain-txe joango nintzateke. Lagun zein oroitzapen mordoa utzi dut bertan.

Bestalde, urtebete etxeko-ak ikusi gabe pasa ondoren, badakit ez diela grazia askorik egingo berriz ere alde egiteak; ez oraingo, behintzat... Hala ere, onartu beharrean nago badudala berriz etxetik urrunera eramango ninduketen proiekturen bat buruan bueltaka.



KARKARA

MA*NA lokutorioa

— Gaiak: • hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •
— hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •
— hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •
— hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •
— hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •
— hizunak, hitzak, hitzak (aina, pertsak, adibideak...) •

Endaia enparantza,1
20810 ORIO (Gipuzkoa)

Tel./Fax: 943 13 50 82
locu-mana@enskalnet.net

ARETO FUTBOLA

■ Urriaren 27an, nazional B kategorian: Allerru Algeposa-Orioko tabernak. Gipuzkoako Ligako 2. kategorian: Pub J&C-Orioko Tabernak B.

■ Azaroaren 3an, nazional Bn: Orioko tabernak-Jarrilleros. Gipuzkoako Ligako 2.en: Orioko tabernak B-Donibane Pari Berri.

■ Azaroaren 10ean, nazional Bn: Iturriondo pinturas Izkara-Orioko tabernak. Gipuzkoako Ligako 2.en: Gure txokoa-Orioko tabernak B.

KONTZENTRAZIOA

■ Urriaren 26an, euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan plazan.

BIDEO FORUMA

■ Urriaren 26an, kultur etxeko areto nagusian: *Paris je t'aime* filma. 22:00etan.

■ Azaroaren 2an, kultur etxeko areto nagusian: *Nadie sabe* filma. 22:00etan.

■ Azaroaren 16an, kultur etxeko areto nagusian: *Los idiotas* filma. 22:00etan.

ESTROPADAK

■ Azaroaren 2an, Ikastolako pergolan, Ortzaiakako San Martin festetan egingo den traineru estropadaren inguruko bilera egingo da, 19:30ean. Parte hartu nahi

**Erromeriak Ortzaiakan**

Parranda giro onean egiteko aukera izango da aurten ere Ortzaiakan. Horretarako aitzakia paregabea eskaini digu hango festa batzordeak. Izan ere, azaroaren 16ko asteburuan bi erromeria izango dira: Gozategitarrena 16an, eta Tapia eta Leturiaren emanaldia 17an. Azken hauen aurretik, gainera, bertso saio batez gozatzeko aukera izango dute Ortzaiakara gerturatzen direnek.

duenak bertara azaldu beharko du.

FUTBOLA

■ Urriaren 27an, regionalak: Ilintxa-Orio. Jubenilak: Zumaia-Orio. Kadeteak: Orio-Martutene. Infantilak: Orio-Astigarraga Mundarro. Emakumezkoen ligan: Intxaurdi-Orio.

■ Azaroaren 3an,

regionalak: Orio-Urola. Jubenilak: Orio-Anaitasuna. Infantilak: Vasconia-Orio. Emakumezkoen ligan: Orio-Tolosa. Kadete neskak: Añorga-Orio.

■ Azaroaren 10ean, regionalak: Amara Berri-Orio. Jubenilak: Bergara-Orio. Kadeteak: Amaikak bat-Orio. Infantilak: Orio-Amara Berri.

Emakumezkoen ligan: Ostadar-Orio. Kadete neskak: Orio-Ostadar.

TRASTE ZAHARRAK

■ Orion, azaroaren 14an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta udaletxean abisua eman. Trasteak jasotzera etxeraino joatea nahi baduzu, deitu 902 54 06 54 zenbakira.

SILO-BOLAK

■ Azaroaren 13an egingo dira silo-bolak. Zerbitzuaren inguruko informazioa jasotzeko Urkomera deitu: 943 81 65 00; edo bertako arduradunarekin hitz egin: Antonio, 629 81 18 86.

PODOLOGOA

■ Azaroaren 10ean, Aian. Ordua hartzeko Udaletxean eman behar da izena. Tf: 943 13 11 44.

SANIKOLASAK

■ Urriaren 31n, azaroaren 7an eta 14ean, Kultur etxean, San Nikolas festak antolatzen direla irekiak. 19:00etan.

ORDU ALDAKETA

■ Urriaren 28an ordu aldaketa izango da eta neguko ordutegira pasako dira erlojuak. 02:00etan 03:00ak jarri behako dugu. Modu horretan, ordubete gutxiago izango du hilaren azken igandeak.

ITSASOA

urria	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
27	05:43 eta 18:08	11:50 eta	
28	05:20 eta 17:47	00:04 eta 11:33	
29	05:57 eta 18:27	eta 12:18	
30	06:38 eta 19:10	00:23 eta 13:05	
31	07:24 eta 20:00	01:01 eta 13:59	
01	08:27 eta 21:14	02:03 eta 15:02	
02	10:00 eta 23:03	03:15 eta 16:22	
03	11:51 eta 00:00	04:49 eta 18:06	
04	00:43 eta 13:12	06:32 eta 19:23	
05	01:44 eta 14:04	07:35 eta 20:06	
06	02:23 eta 14:42	08:16 eta 20:39	
07	02:55 eta 15:14	08:49 eta 21:09	
08	03:23 eta 15:43	09:21 eta 21:37	
09	03:50 eta 16:10	09:52 eta 22:05	
10	04:16 eta 16:37	10:23 eta 22:33	

ZAINTZAKO BOTIKAK**URRIA-AZAROA**

■ 26an, G. Artiñano
 ■ 27 eta 28an, Azaldegi
 ■ 29an, Olaizola
 ■ 30ean, Mutiozabal
 ■ 31n, Barrenetxea
 ■ 01ean, Olaizola
 ■ 02an, Azaldegi
 ■ 03 eta 04an, Zulaika
 ■ 05etik 11ra, Lasa
 ■ 12an, Barrenetxea
 ■ 13an, G. Artiñano
 ■ 14an, Azaldegi
 ■ 15ean, Zulaika
 ■ 16an, Iriarte
 ■ 17 eta 18an, Olaizola

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

Barrenetxea: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

Mutiozabal: Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

Olaizola: S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz

Lasa: Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

G.Artiñano: Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

Iriarte: Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz

Zulaika: Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

AZARROAREN 5etik AURRERA



Aiarren eta oriotarren ataria

www.karkara.com